

6. ikasgaia.

INDEPENDENTZIA ETA ERANTZUKIZUNA.

1. Epaille eta magistratuak eta haien funtsezko printzipioak

Organo jurisdikzional mota

Jurisdikzio-langileen kategoriak

Jurisdikzio-ahalmenaren titularrak, ez funtzionario arruntak

Independentzia. Higieztasunaren, alderdikeria ezaren eta legeari men-egitearen printzipioak

2. Independentzia judizialaren printzipioa eta haren bermeak

Legeari men-egitearen printzipioarekin lotuta. Haren edukia

- a) Gizartearen aurrean hartutako bermeak
 - Baldintzak (BJLOaren 302. art.)
 - Ezgaitasunak (BJLOaren 303. art.)
 - Bateriaezintasunak (EKaren 127.2. eta BJLOaren 389. artk.)
 - Debekuak (EKaren 127.1. art.)
- b) Estatuaren botereen aurrean hartutako bermeak
 - Legegilearen aurrean
 - Betearazlearen aurrean
 - Judizialaren aurrean
- c) Prozesuko alderdien aurrean hartutako bermeak: alderdikeria eza
 - Abstentzioa eta ezespena

3. Erantzukizun judizialaren printzipioa

- Erantzukizun diziplinarioa. Falta motak eta zigorra ezartzeko eskumena
- Erantzukizun zibila. Baldintzak
- Erantzukizun penala. Legitimazio aktibodunak

4. Kontu judizialetan Estatuak duen ondare-erantzukizuna

Ezaugarri komunak

Egoerak:

- Akats judiziala
- Justizia-administrazioaren ez-ohiko funtzionamendua
- Behin-behineko espetxeratzea. Kalte-ordaina eskatzeko aukera ematen duten bi egoera

1. EPAILE ETA MAGISTRATUAK ETA HAIEN FUNTSEZKO PRINTZPIOAK

Ikasgai honetan, epaile eta magistratuen estatutu pertsonala aztertuko dugu. Botere Judizialaren Lege Organikoak ezartzen du estatutu berezi hori, eta, batez ere, printzipio eta edukiei ekingo diegu berariaz.

Baina araudi hori aztertzen hasi aurretik, beharrezkoa da jakitea norengan eragiten duen; hau da, lehenik eta behin, organo jurisdikzional motak eta jurisdikzio-langileen kategoriak zein diren aipatuko dugu. Pertsonal jurisdikzionalaz hitz egitean, gogoan izan behar dugu horiek jurisdikzio-ahalmena egikaritzen dutela, eta ez ditugula nahasi behar justiziaren administrazioaren zerbitzura lan egiten duten bestelako langileekin, hala nola, idazkari judizialak, eta abar.

Organo jurisdikzional mota bi ditugu:

- Pertsona batek osatutakoak, epaitegiak, alegia
- Pertsona batek baino gehiagok osatutakoak, hau da, kide anitzeko organoak: auzitegiak (Auzitegi Nazionala eta Probintzialak, eta Auzitegi Nagusiak eta Gorena).

Halaber, oro har **jurisdikzio-langileen kategoria** bi daude: epaile eta magistratuak (dena den, hirugarren kategoria bat ere bada, Auzitegi Goreneko magistratuena; baina 8. ikasgai sakonduko dugu horretan).

Oro har, epaileak izango dira epaitegietan dihardutenak eta magistratuak, ostera, auzitegietan ebazten dutenak, hots, kide anitzeko organoetan dihardutenak. Hala ere, magistratuari dagokion herri edo lanpostuaren arabera, baliteke magistratu bat epaitegi batean jardutea; kasu horretan, magistratu-epaile deritzo horri.

Epaile eta magistratuen estatutu bereziaren oinarria berek duten botere politikoan dago; horregatik ezin ditugu funtzionario arruntekin guztiz alderatu, eta, orobat, beharrezkoa da dagozkien berezitasunak estatutu horietan jasotzea.

Hori ulertzeko, jurisdikzioa subiranotasunetik zuzen eratortzen dela hartu behar dugu aintzat eta Estatuak ahalmen hori epaileen esku uzten duela haiek gauza dezaten. Ondorioz, esan dezakegu Botere Judiziala gaur egun benetako botere politikoa dela, eta, hori dela-eta, ezin dezakegu epaileak funtzionario arruntak direnik esan. Are gehiago, doktrinak funtzionarioak ez direla baieztatzen du, jurisdikzio-**ahalmenaren titularrak** baizik. Funtzionario arruntek ezin dute halako ahalmen egikaritu, eta horregatik da hain berezia haien estatutua. Izan ere, Konstituzioak hainbat artikulutan arautzen ditu funtzionario arruntak eta pertsonal jurisdikzionala.

Printzipioei buruz mintzatzeko, batez ere, independentzia-printzipioa aipatu beharra dago, eta independentziaren barruan, beste azpiprintzipio batzuk izango ditugu, baina independentzia beti ardatz edo erreferentziatza hartuta. Azpiprintzipio horien artean, besteak beste, higieztasunaren, erantzukizunaren, alderdikierarik ezaren eta legeari men egitearen printzipioak ditugu, Konstituzioaren 117.1 artikuluan aurki ditzakegunak.

Halaber, epaile eta magistratuen independentzia hori hiru elementuren aurrean aldarrikatu beharko da: alde batetik, Estatuaren gainontzeko botereen aurrean, gizartearen aurrean, bigarren, eta, azkenik, prozesuko alderdien aurrean. Eta horixe aztertuko dugu datorren atalean.

2. INDEPENDENTZIA JUDIZIALAREN PRINTZPIOA ETA HAREN BERMEAK

Lehenengo eta behin, Espainiako Konstituzioaren 117.1. artikuluari so egin beharko diogu berriro ere –eta baita gauza bera adierazten duen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 1. artikuluari ere-. Horrek xedatzen du magistratu eta epaileak bakar-bakarrik legearen eraginpean egongo direla, eta hori da, hain zuzen ere, **legeari men egitearen printzipioaren** oinarria: legetik at ez dute bestelako eraginik jaso behar.

Eta nola ulertu behar dugu printzipio hori, hots, legearen eraginpean bakarrik egote hori?; haren edukia ezagutzeko, funtsezkoa da hiru elementuri erreferentzia egitea:

- Lehenengoz, 117. artikulua "legea" aipatzen badu ere, ezin dugu termino hori literalki interpretatu, era zabal batean baizik, hau da, artikulua **ordenamendu juridiko guztia** aipatuko balu bezala; beraz, azken finean, Konstituzioaren, legearen eta erregelamenduen menpe egongo dira epaile eta magistratuak.
- Epaile eta magistratuak ez dira edozein motatako legeren menpean egongo, bakarrik **lege konstituzionalen menpe**, hau da, Konstituzioarekin bat datozen legeen menpe. Eta legea Konstituzioaren aurka egonez gero, epaileak konstituziokontrotasun-arazoa jarri beharko luke Konstituzio Auzitegiaren aurrean.
- Ildo beretik, erregelamenduen menpe ere egongo dira; baina, **erregelamenduen kasuan**, beste jokabide bat har dezakete epaileek. Aurretik, esan dugu legeen kasurako eta arazoren bat egotekotan Konstituzio Auzitegira jo behar zutela horrek konstituziokontrotasuna ebatz zezan; erregelamenduaren kasuan, berriz, legeen kontra egonez gero, haiek, hau da, epaileek ez dute nahitaz aplikatuko, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 6. artikulua dioenez.

Aipagarria da, beraz, auzitegi eta epaitegiek hierarkikoki ez dutela inoren menpe jardungo eta ez dutela inongo agindurik jasoko organo nagusi edo bestelako Estatuko botereen aldetik beren eskumenak egikaritzeko. Jakina, ez dugu hori nahasi behar helegiteak jartzeko eskubidearekin, posible baita legeak ezarritako prozedurei jarraituz —legeek aurreikusitako helegiteen bidez, hain zuzen ere— epaitegi edo auzitegi batek emandako ebazpena beste organo batek aldatzea. Baina argi izan behar dugu organo bakoitzak independenteki eta agindurik jaso gabe lan egiten duela ebazpenak emateko orduan.

Beraz, maila teoriko batetik ikusita epaileek izango duten lotura bakarra legea izango den arren, eguneroko praktikan haiek ebazteko orduan izan ditzakeen interferentziak desagertarazten saiatu behar da. Lehen esan dugun moduan, interferentzia horiek gizartetik, Estatuaren botereetatik eta prozesuko

alderdietatik etor daitezke. Horrenbestez, epailearen independentzia ziurtatzeko, legeak harturiko bermeak banan-banan ikasiko ditugu jarraian.

a) Gizartearen aurrean hartutako bermeak

Batzuetan nahiz eta epaile edo magistratua prozesuko alderdi zein gaiarekiko neutral agertu, gizarte-lotura zein lotura pertsonalak izan litezke, era abstraktu batean jurisdikzio-langileak horrengan nolabait eragin lezaketenak. Horien aurrean, beraz, bermeak hartu behar dira. Lau multzotan sailkatuko ditugu berme horiek: baldintzak, debekuak, ezgaitasunak eta bateraezintasunak.

Baldintzei dagokienez, pertsona batek epailea izateko alde zurretik bete behar dituen baldintzak ditugu; Botere Judizialaren Lege Organikoaren 302. artikuluan jasota daudenak:

- Espainiarra izatea
- Adin nagusikoa izatea
- Zuzenbidean lizentziaduna izatea
- Legeak ezarritako inongo ezgaitasun-ziorik ez izatea

Aipatutako baldintza horiek betetzen dituzten pertsonak oposizioetan parte hartu ahal izango dute, eta, horiek gaindituz gero, eskola judizialean berariazko ikastaro bat egingo dute; horren ostean, epaile bihurtuko dira (horrez gain, badaude karrera judizialean sartzeko beste bide batzuk, lehiaketa, esaterako, baina horiek 8. ikasgaiaren ikusiko ditugu).

Ezgaitasunak Botere Judizialaren Lege Organikoak bere 303. eta 379. artikuluetan aipatzen dituenak izango dira eta, horien artean, honako hauek dira garrantzitsuenak:

- Funtzio judiziala aurrera eramateko fisikoki edo psikikoki ezindua izatea.
- Dolozko delitu batengatik kondenatua egotea, birgaituta ez dagoen bitartean.

- Beren eskubide zibilak osoki egikari ezin ditzaketenak.

Bateraezintasunen barruan, Konstituzioaren 127.2. artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 389. artikulua aipatu behar ditugu, azken horrek Konstituzioak esandakoa garatzen du eta. Lege Organikoaren artikulua hori da, hain zuzen, Konstituzioan aipaturiko bateraezintasun-erregimen hori ezartzen duena.

Lege Organikoaren artikulua hori aztertuz gero, antzeman dezakegu oro har soldatapeko lanbide ia-ia guztiekin bateraezintasuna aldarrikatzen dela, epaile eta magistratua izateko bateraezintasuna, alegia (adibidez, ezin dira abokatu edo prokuradoreak izan, ezta aholkularitza juridikoan jardun ere). Dena dela, salbuespenak egon badaude: unibertsitateko irakasle izatea, ikerkuntzan jardutea edota arte zein literatur ekoizpenak egitea, esaterako.

Debekuak aztertzerakoan, Konstituzioaren 127.1. artikulua eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 395. artikulua izango ditugu oinarri, bigarren horrek Konstituzioak esandakoa garatzen baitu. Artikulu horien arabera, epaileek debekatuta daukate:

- Beste kargu publiko batean jardutea.
- Alderdi politiko baten bazkidea izatea, edo sindikatu batena. Dena den, horrek ez du esan nahi epaile eta magistratuek askatasunez elkartzeko eskubiderik izango ez dutenik, Konstituzioaren 127.1 artikulua berak aurreikusten duen moduan. Elkartzeko aukera edo eskubide hori Botere Judizialaren Lege Organikoaren 401. artikulua garatu du, eta, hala, Magistratu eta epaileek osatutako elkarteek izaera juridikoa izango dute, eta beren helburuak –beren interes profesionalak defendatzea, adibidez– lortzeko gaitasuna izango dute. Elkarte horiek izena eman beharko dute erregistroan, eta estatutu propioa izango dute.

Epaile eta magistratuek —hau da, Botere Judizialeko kideek, lau multzo horietan ezarritako eskakizunak betez gero—, pentsa daiteke gizartetik jaso ditzaketen eraginak saihestea ahalbidetzen dela, hau da, gizartearen aurrean epaile eta magistratuak independenteak izango direla. Izan ere, epaile edo

magistratuek auziarekiko izan dezaketen gizarte-lotura apurtzeko bermeak izango dira betekizun edo eskakizun horiek.

b) Estatuko beste botereen aurrean hartu beharreko bermeak

Berme horien garrantzia ukaezina da (seguruenik, hiru berme motetatik, aipagarrienak dira), eta horretarako arrazoia historikoa da, mendeetan zehar Botere Betearazlea Botere Judizialaren independentzia urratzeko irrikitan egon delako nola edo hala Botere Judiziala bere menpe jartzen saiatuz. Baina ez bakarrik Botere Betearazlearen aurrean, gainontzeko bi botereen aurrean — legegilearen eta judizialaren aurrean— bermeak hartzea ere ezinbestekoa da, eta horiek ere izango ditugu aztergai.

Beraz, **Legegilearen aurrean** Konstituzioak hartutako berme bi aipatuko ditugu:

Lehenengoz, Konstituzioaren 76. artikulua esanetan, legebiltzarreko ikerketa-batzordeen emaitzek ez dituzte organo jurisdikzionalak lotetsiko; hau da, auzitegiek ez dituzte zertan egiazkotzat hartu batzordeek eskainitako datu eta ondorioak. Izan ere, argi ikusten da hemen bi bide ezberdin ditugula: alde batetik, legebiltzarrean egiten dena, erantzukizun politikoa bideratzeko, eta bestetik, epaileak egiten duena, erantzukizun penala eskatzeko.

Legegilearen aurrean harturiko bigarren bermea Konstituzioaren 122. artikuluan aurki dezakegu; horrek, alde batetik, epaileen estatutua xedatzen du eta, bestetik, esaten da epaitegi eta auzitegien antolakuntza eta funtzionamendua lege organiko baten bidez arautu behar dela. Dakigunez, lege organiko bat onartzeko, legebiltzarren gehiengo absolutua beharrezkoa izango da, eta gehiengo horrek, hain zuzen ere, bigarren bermea osatuko luke. Konstituzioak ezarritako lege organikoaren eskakizuna Botere Judizialaren Lege Organikoak bete du eta, beraz, epaileen estatutuaren zein organo jurisdikzionalen inguruko araudia topa dezakegu han. Bukatzeko, berme hori formala izateaz gain, bikoitza ere bada, Betearazlearekiko bermeari ere badagokiolako (jarraian ikusiko dugun bezala).

Botere Betearazlearen aurrean hartutako hiru bermeak funtsezkotzat hartu behar ditugu, Botere Betearazlea beti ahalegindu izan baita Botere Judizialean eragina izaten edo hura kontrolatzen:

Arestian aurreratu dugun bezala, legegilearentzat aipaturiko azken bermea, beste ikuspuntu batetik ikusita, **Betearazlearekiko bermea** ere bada; izan ere, Botere Judizialaren Estatutua lege organikoaren bidez onartu behar bada, Betearazleak Botere Judizialaren esparrua dekreturen bidez xedatzea eragozten da.

Esandakoaz gain, **Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia** (8. ikasgaiaren zehazkiago aztertuko duguna) aipatu beharra dago. Konstituzioaren 122.2. artikulua araberak, Kontseilu Nagusia izango da Botere Judizialaren gobernu organoa. Hala, Botere Judizialak ez du Betearazlearekiko inongo harremanik izango, bere gobernu propioa duelako eta printzipioz Kontseilu Nagusiak ez lukeelako Betearazlearekin harremanik izan behar. Ondorioz, ikuspuntu horretatik, zaila izango da Betearazleak independentzia urratzea.

Horrez gainera, **higiezintasuna** aipatu beharra dago. Printzipio horren bidez —Konstituzioaren 117.1. eta 117.2. artikuluan berariaz jasotzen dena— debekatuta dago "epaile eta magistratuak banantzea, etetea, lekualdatzea eta erretiroa ematea, baldin eta Botere Judizialaren Lege Organikoan ezarritako zioetariko bat gertatzen ez bada".

Beraz, epaileak bere lanpostuan jarraituko duela bermatzen du horrek, nahiz eta ebatzen ari den auzia oso garrantzitsua den, edo Gobernuarentzat deserosoa gertatzen den (demagun, esaterako, politikari bat auziperatuta dagoela). Berme hori ere bikoitza da, laster ikusiko dugunez aldi berean Botere Judizialarekiko bermea dakar eta.

Honako hauek dira **Botere Judizialaren** aurrean hartutako bermeak:

Esan bezala, **higiezintasuna** bermea da Botere Judizialaren aurrean ere, Kontseilu Nagusiak ezin izango baitu epaile bat bere lanpostutik lekualdatu edo kendu Botere Judizialaren Lege Organikoan mugatutako arrazoi batengatik ez bada.

Bigarrenez, duela gutxi **Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia** aipatu dugu, Botere Judizialaren gobernu-organoa, alegia. Baina organo berezi hori

eratu ostean, litekeena da organo horrek berak epaileengan nolabaiteko interferentzia eragiten saiatzea.

Hori galarazteko, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 12.3. artikulua Kontseilu Nagusia berriaz aipatzeaz gain, legeak ezartzen du interpretatzeko araurik ezin duela eman; hau da, Kontseiluak epaile eta magistratuei ezin diela halako araurik eman.

Halaber, orain arte aipatutakoak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari egiten dio erreferentzia; baina **gainontzeko epaile eta magistratuengandik** etor daitezkeen eraginak saihestea ere beharrezkoa da. Gainontzeko epaileek ezin izango diote ezer esan edo aholkatu auziari buruz prozesu bat ebazten ari den epaile edo magistratuari; izan ere, aurretik Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren kasurako aipatutako artikulua horixe adierazten du (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 12.3. artikulua).

Eta are gehiago, karrera judizialean gorago dauden epaile eta magistratuek ezin izango dituzte zuzendu beherago daudenek egindako interpretazioak, legeak aurreikusitako helegiteen bitartez ez bada (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 12.2. artikulua); beraz, epaile batek egindako interpretazio bat zuzentzeko, legeak aurreikusitako helegiteen bidez egin beharko da beti.

Gainera, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 417.4. artikulua araberan, halako presio edo aginduren bat gertatzekotan, falta oso larritzat joko litzateke, eta horren zigorra kaleratzea izan liteke.

Horrenbestez, eta laburbilduz, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren aldetik, eta gainontzeko epaile eta magistratuen aldetik ere, beharrezkoa da presioak edo interferentziak eragozteak. Horiek ekiditeko asmotan, azaldu berri ditugun bermeak errespetatu beharko dira.

c) Alderdien aurrean hartutako bermeak

Hemen **alderdigabekeriarik ezaz** hitz egin behar dugu, hots, epaileak alderdiekin prozesuz kanpoko inongo harremanik ez izateaz —epaia emateko orduan eragina izan dezakeen inongo harremanik, behintzat—. Adibide batekin hobeto uler dezagun, demagun alderdi bat eta epailea auzokideak direla; haien

arteko harreman pertsonalik ez bada, legeari berdin izango dio. Baina, adiskidetasuna egonez gero, ostera, erlazio hori garrantzitsua izango da legearen ikuspegitik, eta hori ekiditen saiatuko da.

Prozesuan, alderdiek parte hartuko dute; horien gainean, epaileak alderdiekiko hirugarren elementu neutral gisa agertu beharko du. Prozesutik at dauden inguruabarrek ezin izango dute berarengan eragin, bestela alderdigabetasuna kolokan jarriko bailitzateke.

Jakina, alderdigabetasun hori elementu guztiz subjektiboa da, epailearen buruan baino ez dagoena, eta, hor barruan sartzea ezinezkoa denez, legea egoera hori nolabait objektibizatzen saiatzen da, alderdigabetasuna kolokan jar dezaketen egoerak legean aurreikusiz. Egoera horiek aurreko ikasgaiaren aipaturakoak dira, hau da, abstentzioa eta ezespena -edo errefusatzea- eskatzeko kariak (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 219. artikuluan aurki ditzakegu horiek). Beraz, dagoeneko 5. ikasgaiaren esandakoa gogoan izan beharko genuke une honetan ere.

Horrenbestez, eta galdera honetan zehar aztertutako berme guztiak gauzaturaz gero, esaten da epaileak independenteak izango direla. Baina independentziak arrisku bat ere badakar, epailea erabat independentea izatekotan, ia-ia berak nahi duena egin baitezake. Ondorioz, independentziari kontrapisu bat jarri beharko diogu epaileen jarrera arbitrarioa bihur ez dadin. Eta kontrapisu hori jarraian aztertuko dugun erantzukizun judiziala izango da.

3. ERANTZUKIZUN JUDIZIALAREN PRINTZIPIOA

Gure legedian, Konstituzioren 117.1. artikuluan, eta baita Botere Judizialaren Lege Organikoaren 1. eta 16. artikuluetan ere, erantzukizun-printzipioa agertzen da. Izan ere, epaile eta magistratuek pertsonalki erantzungo diete beren funtzioak egikaritzean egindako urratzei. Urratze horien izaeraren arabera, hiru erantzukizun mota izan ditzakete: penala, zibila eta diziplinarioa.

Erantzukizun diziplinarioa

Esaten da erantzukizun mota hau ez dagoela lotuta prozesu jakin batean jurisdikzio-ahalmena egikaritzearekin, epaileen jarduerarekin baizik, baina Estatuaren langiletzat hartuta; hau da, epaileek beren lana egin beharko dute, eta, hori era egokian aurrera ez eramatekotan (demagun ebazpenak emateko behar baino denbora gehiago luzatzen direla), erantzukizun diziplinarioa izango dute Estatuarekiko. Beraz, erantzukizun hori sortarazten duten urratzeak administratiboak direla ondoriozta daiteke.

Erantzukizun hori Botere Judizialaren Lege Organikoan arautzen da, 414. artikuluan eta hurrengoetan, eta, han, beren **larritasunaren arabera** sailkatuta, **hiru falta mota** aurki ditzakegu, arinak, larriak eta oso larriak:

- Falta arinak 419. artikuluan arautzen dira, eta, besteak beste, honako hauek aipa ditzakegu: nagusi hierarkikoekiko errespetu falta (larriak izateko eskakizunak betetzen ez direnean), legeak ebazpenak emateko ezartzen dituen epeak arrazoirik gabe ez betetzea, egun bat eta lau egun bitartean arrazoirik eman gabe egoitza judizialean ez agertzea, eta abar.
- Falta larriei dagokienez, honako hauek ditugu: beste epaile edo magistratu baten jarduera jurisdikzionaletan aholkuren bidez eragin nahi izatea, ebazpenetan egokiak ez diren esakerak erabiltzea, ikerketa-lanak eragozteak, eta abar. (418. artikulua).
- Falta oso larrien kasuan: Konstituzioarekiko leialtasuna kontzienteki urratzea, alderdi politiko edo sindikaturen baten kide izatea, ebazpenen erabateko motibazio falta, eta abar. (417. artikuluan).

Faltaren larritasunaren arabera, **zigor** mota bata edo bestea egokituko zaio (BJLOaren 420. artikulua):

- Arinei dagokienez, edo ohartarazpena edo isuna izango dira aplikatu beharreko zigorrak
- Larrien kasuan, berriz, isuna (baina altuagoa, noski).
- Falta oso larriei honako hauek dagozkie: kargua kentzea, edo lekualdatze-, banantze- edo kaleratze-zigorrak.

Beste alde batetik, zigorraren larritasunaren arabera, **zigorra ezartzeko eskumena** organo bati edo besteari egokituko zaio; eta, hala, Auzitegien Presidenteek (ohartarazpen-zigorraren kasuan), Auzitegien Gobernu Salek (isun edo ohartarazpen eta isuna dagozkion egoerak edo faltak) edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak berak (falta larri eta oso larriei dagozkien zigorretan) izango dute zigorra ezartzeko eskumena (Lege Organikoaren 421. artikulua). Ikusten dugunez, Botere Judizialaren gobernu-organok arduratuko dira zigor horiek ezartzeaz .

Ohartarazpen-zigorraren ezartzen denean izan ezik, gainontzeko zigorrak ezartzeko, aintzat hartu beharra dago instrukzioa egin beharko dela; hau da, gaiaren berariazko ikerketa egin beharko dela; horretarako, prozedura irekitzen duen idazkian bertan, instruktore bat izendatuko da (Lege Organikoaren 423. artikulua).

Erantzukizun zibila

Erantzukizun mota hau azaltzeko, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 411. artikulura jo behar dugu: “epaile eta magistratuek zibilki erantzungo dute beren funtzioak egikaritzean sortutako kalteengatik, doloz edo kulpaz jardun badute”. Horrenbestez, kontuan izan behar dugu jurisdikzio-ahalmena prozesu edo kasu zehatzetan egikaritzen denean gertatzen direla urratze horiek.

Beraz, epaile eta magistratuen erantzukizun zibila sortzeko, **bi baldintza** aurreikusten ditu artikulua horrek:

- Alde batetik, beren jardueretan egindako kalte bati buruz hitz egiten ari gara; hau da, jurisdikzio-ahalmena egikaritzean sorturiko kaltea izango da.
- Bigarrenez, kasu horietan epaile edo magistratuen jarrerak doluzkoa edo erruzkoa (zuhurtziagabekeriazkoa) izan beharko du.

Horrez gain, Lege Organikoaren 412. artikulua arabera, erantzukizun-mota hau eska dezaketenak -hots, legitimazio aktibodunak deritzotenak- alderdi kaltetuak zein haien oinordekoak izango dira.

Gainera, 413.1. artikulua dio kaltea eragin duen prozesuaren **ebazpena irmoa** izan arte erantzukizun zibila eskatzerik ez dagoela. Eskakizun horren oinarria helegiteak jarriz, kalte hori konpontzeko aukeran legoke: ebazpena irmoa ez bada, baliteke helegiteen bidez ebazpenaren edukia aldatzea, eta, ondorioz, eragindako kaltea desagertuko da. Beraz, ebazpena irmoa izan arte itxaron beharko dugu benetan kalte hori pairatu behar dugun ala ez jakiteko. Dena den, eta erantzukizun zibila aitortuko balitz ere, horrek ez luke lehengo prozesuko ebazpenaren edukia aldatuko, horretarako beharrezkoa izango bailitzateke legeek aurreikusitako helegiteen bidea jarraitzea.

Erantzukizun penala

Erantzukizun mota hau Lege Organikoaren 405. artikuluan eta hurrengoetan dago araututa.

405. artikulua epaile eta magistratuek **beren funtzioak egikaritzean** egindako delitu eta faltei buruz hitz egiten du; beraz, jurisdikzio-ahalmena egikaritzean egindako delitu eta faltak izango ditugu. Delitu horien artean, adibide bat ematekotan, aipagarriena edo ezagunena prebarikazioa izango da; horretan, epaile edo magistratuek ebazpen edo epai bat ematen dute, zuzena ez dela jakinda (Kode Penalaren 446. artikulutik 449. artikulura).

Erantzukizun hori eskatzeko legitimazio aktibodunak honako hauek dira: Ministerio Fiskala, kaltetua edo kaltea jasan zuena, eta edozein partikular edo pertsona pribatu –hau da, Konstituzioaren 125. artikulua onartzen duen herri-akzioa- (BJLOaren 406. art.). Prozedura hasteko, kereila aurkeztea beharrezkoa izango da, eta, orobat, baliteke ofizioz hastea.

Azkenik, eta **ebazteko ahalmenari** dagokionez, kaltea eragin zuen epaile edo magistratuaren arabera, ezberdina izango da auzia ebatziko duen auzitegia: batzuetan, Auzitegi Gorena ebatziko ditu erantzukizun penalaren auziak eta beste batzuetan, berriz, Auzitegi Nagusia (BJLOaren 57., 61. eta 73. artikulua).

4. KONTU JUDIZIALETAN ESTATUAK DUEN ONDARE ERANTZUKIZUNA

Orain aztertuko ditugun kasuetan, epailea ez da izango erantzule, Estatu baizik. Erantzukizun mota honek Konstituzioaren 121. artikulua du oinarri; hor, bi egoera aipatzen zaizkigu: alde batetik, akats judiziala, edo akats judizial batek eragindako kaltea eta, bestetik, Justizia Administrazioaren funtzionamendu ez-ohikoak eragindako kaltea.

Horrez gain, aipatutako bi zioei beste hirugarren bat gehitu beharko diegu (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 294.1. artikuluan aurreikusita dagoena), behin-behineko espetxean iragandako denboraldiak sor ditzakeen kalteengatik sortutako erantzukizuna.

Aipatutako egoerak banan-banan ikusi aurretik, esaten da hiru kasuetarako Estatuaren erantzukizunak badituela **ezaugarri jakin** batzuk:

- Zuzena da, hau da, ez dago lotuta epaileak berak izan dezakeen erantzukizunarekin. Erantzukizuna sortarazten duten egitate edo baldintzak gertatuz gero, Estatu zuzenean arduratuko da kalte-ordainaz.
- Objektiboa da, hau da, berdin dio epaile edo magistratuen jarrera doluzkotzat edo erruzkotzat jotzea.
- Beti, jurisdikzio-ahalmena egikaritzearekin lotuta egongo da; hots, epaitzetik eta epaitutakoa betearaztetik etorri behar du Estatuaren ondare-erantzukizunak.
- Sortutako edo eragindako kalteak benetakoa, ekonomikoki neurgarria eta pertsona bati edo pertsona multzo bati egozgarria izan beharko du.

Akats judiziala

Ez dago akats judizialaren kontzeptuari buruzko definiziorik; hala ere, esan daiteke bai egitatezko bai zuzenbidezko akatsa izan daitekeela.

Kasu honetan, akats judizialak **ebazpen irmo bat** eskatzen du; hau da, akats judiziala jasan duen prozesuak ebazpen irmo baten bidez bukatu behar du.

Une honetan, gogoan izan behar dugu epai irmo eta behin betiko epai baten arteko ezberdintasuna zein den. Epai bat ematen denean, berez, behin-betikoa izango da, horren bidez prozesua bukatutzat jotzen delako. Baina prozesu hori bukatu arren, epaiaren kontrako helegite bat aurkez daiteke; hau da, epaiaren edukia aldatzeko asmoz, goragoko organo batera jo dezakegu. Gorago jotzerik ez dagoenean eta helegite gehiagorik aurkeztu ezin denean, epaia irmoa dela esango dugu. Horrez gain, helegiteak aurkezteko beti epe jakin bat dago, eta, epe horretan aurkeztu ezean, ezin izango dugu aurkeztu. Kasu horretan ere -hau da, epea amaitzean-, epaia irmo bilakatzen da.

Epaia irmoa izateaz gain, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak esaten du akatsak oso **argia** izan behar duela. Gainera, **Auzitegi Gorenari dagokio** akatsa onartzea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 293.1. artikulua).

Justizia Administrazioaren ez-ohiko funtzionamendua

Akats judizialarekin gertatzen den bezala, oso kontzeptu zabala hartzen du horrek ere. Auzitegi Gorenaren arabera, ez da izango prozesua izapidetzean gertatutako atzerapen bat; izan ere, beharrezkoa izango da ez-ohiko funtzionamendu horrek arau juridiko baten kontra jotzea; hau da, arau prozesalaren kontrako funtzionamenduan oinarrituta egon behar du zio horrek.

Jazoera hori Justizia Ministerioak zein Gobernuak aitor dezakete; hala balitz, Gobernuak Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari kasu horren txostena eskatuko dio, eta gero, Gobernuak txostenak esandakoa aintzat hartu beharko du bere erabakia hartzerakoan.

Behin-behineko espetxeratzea

Ikusiko dugun moduan, behin-behineko espetxeratzearen kasua beste bietatik ezberdina da (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 294. artikulua). Horretan behin-behineko espetxean epe bat igaro ondoren Estatuari kalte-ordaina eskatu ahal izateko, epai batek adierazi behar du hasiera batean pertsona horri leporatutako egitatea ez zela existitzen.

Dena den, Konstituzio Auzitegiak (Konstituzio Auzitegiaren 98/1992 epaia) interpretatu du lehen esandakoa, eta kalte-ordaina eskatzeko aukera zabaldu egin du. Ondorioz, Konstituzio Auzitegiaren interpretazioaren ostean, bi egoera sar ditzakegu artikulu horren barruan:

- Alde batetik, aurretik aipatutakoa, hots, espetxean egondako pertsona horri leporatutako egitatea existitu ez izana.
- Bestalde, epaiak ebatzitako egitatean pertsona horrek parte hartu ez zuela adieraztea, esaterako, beste leku batean egoteagatik.

Halako egoera bat gertatuz gero, Justizia Ministerioari eskatu beharko lekiok kalte-ordaina, berari baitagokio kalte-ordaina ematea (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 293.2. artikulua). Justizia Ministerioak eskaerari uko egitekotan, bide judizialera jo dezakegu erabaki horren aurka joateko (gatazka hori ebazteko eskumena administrazioarekiko auzien ordenari dagokio).